

Errenteria



kreaktiboia

[adn.errenteria.net](http://adn.errenteria.net)

**IZAN ZURE HERRIAREN ERALDAKETAREN PARTE  
PARTICIPA EN LA TRANSFORMACIÓN DE TU CIUDAD**

### ***Herritar hori:***

*Urtebete iraun duen prozesu baten ondoren, gure ADN aktibo eta kreatiboa osatzen duten hainbat proiekturen berri eman nahi dizut. Prozesu honetarako egindako 44 bileretan, gure herrian hain ugariak diren kultura, enpresa, sindikatu, arte, finantza...mundutik eratorritako 268 herritarrek parte hartu dute. Gainerako proiektuak kontsultatu nahi izanez gero, [adn.errenteria.net](http://adn.errenteria.net) orria begiratzea besterik ez duzu.*

*Izan zure herriaren eraldaketaren parte.*

.....

### ***Estimado ciudadana/o***

*Tras un año de proceso, donde en un total de 44 reuniones han participado 268 personas procedentes del mundo asociativo, cultural, social, empresarial, sindical, artístico, financiero, etc. muy diverso de este pueblo, quiero hacerte llegar algunos de los proyectos que componen nuestro ADN activo y creativo. Si quieres consultar el resto de proyectos, te invito a que accedas a la página web [adn.errenteria.net](http://adn.errenteria.net)*

*Haz posible la transformación de tu ciudad*

Julen Mendoza

**Errenteriako Alkatea** · Alcalde de Errenteria

ADN

KREAKTIBOA

Errenteriak urte askoan berezko nortasuna eman dion ADN aparta eta desberdina du. ADN solidarioa, langilea, lan eta kultura arloan aktiboa, eta jatorri eta sentimendu ugariz osatua. Pertsonari ematen dio balio gorena eta eraldaketa une orotako protagonismoa.

Hain zuzen, ADN kreatibo eta aktibo horrek, ADN dinamiko eta solidario horrek, ahalbidetzen ditu hiria eraldatuko duten etorkizuneko proiektuak.

Errenteria tiene un ADN único y diferente que la ha caracterizado con personalidad propia a lo largo de muchos años. Tiene un ADN solidario, trabajador, activo social y culturalmente, y compuesto por una diversidad de origen y sentimiento. Un ADN donde la persona adquiere un enorme valor y es la protagonista de cada momento de transformación.

Ahora también, es ese ADN creativo y activo, dinámico y solidario, el que hace posible los proyectos de futuro que transformarán la ciudad.

# ERREENTERIA.... ETA BERTAKO PROIEKTU NAGUSIAK Y SUS PRINCIPALES PROYECTOS

SOLIDARIOA, AKTIBOA, KOHESIONATUTAKOA ETA INTEGRATZAILEA  
SOLIDARIA, ACTIVA, COHESIONADA E INTEGRADORA



**“Auzoak” Programa eta Proiektu pilotua Iztietan (auzotik auzoarentzako)**  
Programa “Barrios” y proyecto Piloto en Iztietta (desde el barrio para el barrio)

Auzo bakoitzaren premia nagusiei erantzutea. Horretarako auzoen zerbitzura honakoak jarriko dira: zerbitzuak eta enpleguaren eta gizarte zerbitzuetan lanean diharduten gizarte eragile guztien lan koordinatua. Auzotarrak, Udalaren Gizarte Zerbitzuak, Oarsoaldea, Lanbide eta boluntarioen inplikazioa bultzatuko dugu. Horrela, bada, Udalak auzoei laguntzeko Programa espezifiko abian jarriko du.

Se busca atender las necesidades concretas de cada barrio poniendo a su servicio los recursos y el trabajo coordinado de todos los agentes que trabajan en el área del empleo y los servicios sociales: Vecinos y vecinas del barrio, Servicios Sociales municipales, Oarsoaldea, Lanbide y fortaleciendo la implicación del voluntariado. Para ello el Ayuntamiento pondrá en marcha un Programa específico de apoyo a los barrios.



## > Parez pare De igual a igual

**Prebentzio eta sentsibilizazio ekimenak emakumeen aurkako indarkeriaren gainean (informazio kanpainak eta esperientziak konpartitzeko guneak sortzea) eta indarkeria egoerak jasaten dituzten emakumeekiko ardura hobetzea.**

Iniciativas de prevención y sensibilización sobre la violencia contra las mujeres (campañas informativas y creación de espacios donde compartir experiencias) y mejora de la atención de las mujeres que enfrentan situaciones de violencia.

## > Ahots anitzak Ecos de diversidad

**Aurreiritziak ezabatzeko eta kulturen hurbilketan laguntzeko bideraturiko jarduerak (pedagogikoak, arte adierazpenak,...), era horretan auzotarren arteko koexistentzia ez ezik, benetako bizikidetzara ere izateko.**

Actuaciones (pedagógicas, de expresión artística,...) orientadas a eliminar prejuicios y a favorecer el acercamiento intercultural, buscando no sólo una coexistencia entre vecinas y vecinos sino una auténtica convivencia.

## > Euskaraz bizi

**Euskararen erabilera eta zabalpena bultzatzea. Euskararen erabilera esparru formalek haratago sustatzea, bizitza ekonomikoan eta sozialean eragina izan dezan, eta era horretan, diskurtso eta estrategia berriak sor daitezen, euskal hiztunek nahiz euskal hiztunak ez direnek hobeto jakin edo ikasi dezaten.**

Se trata de que Erreterria favorezca el uso del euskara por parte de todas aquellas personas que lo conocen e impulse extensión de su conocimiento de un número cada vez mayor de personas. El acento se va a poner en lograr que el uso del euskara vaya más allá del ámbito formal, impregne la vida económica y social, y se creen y socialicen nuevos discursos y estrategias que interpelen tanto a las personas vascohablantes como a las que no lo son a mejorar o alcanzar su conocimiento.



## KULTURA, SORMENA ETA IKASKUNTZA BULTZATZEN DUENA QUE IMPULSA LA CULTURA, LA CREATIVIDAD Y EL APRENDIZAJE



### **Liburutegia, ikaste, aisialdi eta erlazio gunea Erreneriako bizilagun guztientzako**

Biblioteca, espacio de aprendizaje, ocio y relación para todas las personas de Erreneria

Egungo beharrei egokituriko liburutegi zerbitzu bat izatea (XXI. mendeko liburutegia) eta bertan bizi diren guztiek aukera erraza izatea prestakuntza eta sozializatorako. Horregatik, erdialdean liburutegi bat izateaz gain, Erreneriako goiko auzo batean beste zerbitzu bat ere izango du; Beraun, Galtzaraborda, Kaputxinoak eta Alaberga goialde eremuari erantzunez. Era horretan, aurrerapauso nabaria emango da herritarrek duten liburutegi beharrei erantzuteko.

Se busca dotar al municipio de un servicio de biblioteca adaptado a las actuales necesidades (“Biblioteca del Siglo XXI”) y asegurar que todas las personas residentes en el mismo accedan fácilmente al conocimiento, la formación y la socialización. Por ello, además de una biblioteca moderna situada en el centro urbano, Erreneria contará con otro equipamiento en un barrio alto, que dé servicio a los barrios de Beraun, Galtzaraborda, Kaputxinos y Alaberga Alto, dando con ello un salto cualitativo importante a la hora de cubrir las necesidades de biblioteca por parte de la población.



### **ARTIOLA proiektua sustatzea Artisautzan erreferentziako zentro izan dadin**

Promoción del proyecto ARTIOLA como Centro de referencia en Artesanía

Artisautzari bultzada, ofizioak eta produktuak, kalitate, zehaztasun eta bikaintasun irizpideen arabera, identitate maila handiko sektore bati proiektzioa emateko. Proiektuak bere gain hartuko ditu prestakuntza, ekoizpen eta erakusketa eta salmenta eremuak.

Se pretende impulsar la artesanía, sus oficios y sus productos, desde criterios de calidad, rigor y excelencia, dando proyección a un sector con alto valor identitario. El proyecto incluirá las vertientes formativa, productiva y de exhibición y venta.



## Euskal Herriko Arte Eszenikoetako Zentroa Centro de Artes Escénicas de Euskal Herria

**Arte Eszenikoetako erreferentziako gunea izatea. Bertan sormena, prestakuntza eta lan artistikoak erakustea bultzatuko dira, eta, bide batez, Erreterria kultura zirkuituetan sartzea bideratuko dugu. Honek, udalerrria kanpoaldean ikusia izateaz gain, aukera emango du jarduera berriak sustatu edo daudenak dinamizatu daitezzen (artistikoak, merkataritzakoak, ostalaritzakoak,...), enplegua sortzeko elementu garrantzitsua bilakatuz.**

Este centro está llamado a convertirse en espacio de referencia en las Artes Escénicas. Desde él se impulsará la creación, la formación y la exhibición de trabajos artísticos, favoreciendo la inclusión de Erreterria en los circuitos culturales. Ello contribuirá además de a dar visibilidad al municipio en el exterior, a permitir que se promuevan nuevas actividades o se dinamicen las existentes (artísticas, comerciales, hosteleras,...), convirtiéndose así en un elemento de gran importancia para la creación de empleo en Erreterria.

## BIZI, LAN EGIN ETA GOZATZEA AHALBIDERATZEN DUENA QUE ES ATRACTIVA PARA VIVIR, TRABAJAR Y DISFRUTAR

- **Hirigune Historikoa lehengoratzeta eta biziberritzea erakargarritasun handiagoa izan dezan bertakoentzat nahiz bisitarientzat** · Regeneración y revitalización del Casco Histórico para que gane en atractivo tanto para la población local como visitante



**Bertan jasotzen da honako hauetan jardutea: erakinetan, etxebizitzetan eta hirigunean, ondarean eta kulturen eta merkataritzako eta ostalaritzako proiektuen garapenean. Honekin batera, Erdiko kalean eta Beheko kalean hutsik dauden lokaletan artisautzako tailerren sorrera sustatzea, esate baterako, Artiola proiektua.**

Es un proyecto muy ambicioso que contempla actuaciones en edificios, viviendas y espacio urbano, en el patrimonio y la cultura y en el desarrollo de proyectos de dinamización comercial y hostelería. Asimismo, pretende fomentar la creación de talleres artesanales en locales vacíos de Erdiko kalea y Beheko kalea, como por ejemplo el proyecto Artiola.

- **Oiartzun ibaia, ibai-parkea**  
Río Oiartzun, un parque fluvial

**Ibaiari berezko erakargarritasuna ematea helburu, Errenteriak ibaiarekin duen harremana areagotu behar da, berreskuratutako korridore urdin eta ingurumenkalitate gisa. Horretarako, paisaian, ibaiertzeko bioaniztasunean eta inguruan eragiteko jarduerak proposatu dira: Batetik, ibai-ardatzaren segida bi muturretan zabaltzea herriaren barnean, Pasaia eta Oiartzunekin lotuz, eta ingurumarietako hiriguneak berriro antolatuz. Eta bestetik, ibaiaren azken tartean nabigatu ahal izatea kirol eta aisialdi jardueretarako. Honetarako, trenaren ondoko ibaiaren gainean dagoen oinezkoentzako pasabidea igoko da ontziak pasatu ahal izateko.**

Este proyecto pretende dotar al eje fluvial de atractivo propio aumentando la relación de Errenteria con el río como corredor azul recuperado y de calidad ambiental. Para ello se plantean actuaciones sobre el paisaje, sobre la biodiversidad de las riberas y su entorno; se prevé,

también, la ampliación de la continuidad del eje fluvial en sus dos extremos, dentro del pueblo y conectando con Pasaia y Oiartzun y la reordenación de zonas urbanas aledañas. La actuación prevista contempla, además, recuperar la navegabilidad del tramo final del río para uso deportivo y de ocio acometiendo la elevación de la altura sobre el río de la pasarela peatonal junto al ferrocarril para permitir el paso de embarcaciones.



**Fanderiako Errota berritzea interpretazio gune izateko eta topoko geltokia egokitzeko “geltoki berde gisa”** · Rehabilitación del Molino de Fandería como espacio de interpretación y adecuación de la estación del topo como “estación verde”

**Fanderiako Errotan bisitarientzako arreta gune bat ezartzea eta Fanderian Euskotreneko “topo” geltokia egokitzeko “geltoki berde” gisa.** Era horretan, bizikleta zerbitzua jarriko da eta Ibaiaren korridorera eta beste natur gune batzuetara joateko abiagunea izango da.

Se pretende, además, establecer una función de atención a visitantes en el Molino de Fandería y adecuar la estación del “topo” de Euskotren en Fandería como “estación verde”, posibilitando un servicio de bicicletas y como punto de acceso al corredor del Río y otros espacios naturales.

**Añarbe baso bikainen artean izatea, Lau Haizeta berritzea eta biziberritzea eta San Marko eta Listorreta sustatzea bisitarientzako harrera eta inguruko elementuak interpretatzeko gune izan dadin** · Integrar Añarbe entre los bosques de excelencia, renovar y revitalizar Lau Haizeta e impulsar San Marcos y Listorreta como puntos de acogida de visitantes y de interpretación de los elementos de su entorno

**Natur altxor horien eta Erreterian dagoen arkitektura eta kultur ondarearen balioa handitzeko, bertako aberastasuna gorde eta ezagutzera emateko modu horretan herritarrek balora eta goza dezaten.**

Se trata de abordar acciones que revaloricen estos tesoros naturales y el patrimonio arquitectónico y cultural existente en Erretería, preservando su riqueza y dándola a conocer para que pueda ser apreciada y disfrutada por la población.

**Baliabideen kontsumoan efizientea eta iraunkorra izango den ingurunea sortzea**

Potenciar un entorno sostenible y eficiente en el consumo de recursos

**CO2 isurketak gutxitzeko Europako helburuak bete eta ahal den neurrian gaitziteza gutxienez %20, energia-eraginkortasuna %20 igotzearen ondorioz eta energia eskaeraren %20 energia berriztagarrien bidez hornituz.**

Cumplir y en lo posible superar los objetivos europeos de reducción de emisiones de CO2 en al menos un 20 %, como resultado de aumentar en un 20 % la eficiencia energética y cubrir un 20 % de la demanda energética con energías renovables. Así mismo, aumentar significativamente el reciclaje de residuos y reducir el uso del automóvil.



## GIZAKIAN PENTSATUTAKO EKONOMIA BULTZATZEN DUENA QUE PROMUEVE UNA ECONOMÍA AL SERVICIO DE LAS PERSONAS



### Manufaktura-zentroa eta enpresa gunek elkarlanean oinarriturik

Centro manufacturero y viveros de empresas basados en el trabajo colaborativo

Industria enpresa haztegia bultzatuko da, hau da, teknologia eta eta artisautzako jarduera haztegia eta coworking edo elkarlanean aritzeko zentroa, zuzeneko enplegua sortu eta herriko jarduera guztien traxzio lanak egiteko helburuarekin. Hartarako ekoizpen gunek sortuko dira, non profesional independenteek, ekimeneko pertsonak eta hainbat sektoretako Enpresa Txiki eta Ertainek (ETE) konpartitu ahal izan dezaten langune bera, fisikoki nahiz birtualki, eta, era horretan, modu independente batean beren proiektu profesionalak garatu ditzaten, guztien arteko proiektuak sustatzearekin batera. Bestalde, gastu orokorrak konpartitzeaz gain, ekoizpen ekipoa konpartitzea bultzatuko da ahal den neurrian zehazturiko jardueraren hainbat arlotan.

Se impulsará un vivero de empresas industriales, un vivero de actividades tecnológicas y artesanales y un centro de coworking o trabajo colaborativo con el objetivo de generar empleo directo y traccionar las actividades del conjunto del municipio. Para ello se crearán espacios productivos donde profesionales independientes, personas emprendedoras y pymes de diferentes sectores puedan compartir un mismo espacio de trabajo, tanto físico como virtual, para desarrollar sus proyectos profesionales de manera independiente, a la vez que fomentan proyectos conjuntos. Además de compartir gastos generales y romper con el aislamiento, se promoverá el compartir equipo productivo cuando ello resulte posible en áreas de la actividad determinadas.



Errenteria  
**ADN**  
kreatiboa

[adn.errenteria.net](http://adn.errenteria.net)



[www.errenteria.net](http://www.errenteria.net)



**HERRI BIZIA**  
*etorkizunaren bidean*